

# Egoeraren Azkerketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**58.700 lanpostu  
suntsitu dira 2009an**

**41.600 pertsona  
gehiago langabezian**

**Langabezia Europar Batasunean  
baino gehiago hazi da**

**KPIa baino soldata-igoera  
handiagoak lortu behar dira**

**Menpekoen %21,5ak  
soilik du estaldura**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

INDICADOR	PERIODO DE REFERENCIA		12 MESES ANTES	FINAL 2008
<b>EMPLEO Y PARO</b>				
JARDUERA TASA (%)	73,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	74	
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	71,3	2009ko III. HIRUHILEKOA	71,3	
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.189.600	2009ko IV. HIRUHILEKOA	1.248.300	
SOLDATAKO BIZTANLERIA	989.000	2009ko IV. HIRUHILEKOA	1.006.000	
ALDI BATERAKO TASA (%)	22,1	2009ko IV. HIRUHILEKOA	25,4	
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,8	2009ko III. HIRUHILEKOA	14,3	
BIZTANLERIA LANGABETUA	155.300	2009ko IV. HIRUHILEKOA	113.700	
LANGABEZI TASA (%)	11,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	8,3	
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,1	2009ko III. HIRUHILEKOA	6,9	
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	34	2009ko IV. HIRUHILEKOA	22,6	
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,4	2009ko III. HIRUHILEKOA	15,7	
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	12,3	2009ko IV. HIRUHILEKOA	9,3	
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9	2009ko III. HIRUHILEKOA	7,4	
SINATURIKO KONTRATUAK	874.649	2009ko URT-ABE.	1.061.684	
KONTRATATU MUGAGABEAK	67.619	2009ko URT-ABE.	97.006	
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>				
ONARTURIKO FITXAK	3.512	2009ko URT-ABE	760	
ERAGINDAKO LANGILEAK	106.395	2009ko URT-ABE	23.833	
<b>LAN ISTRIPUAK</b>				
ISTRIPUAK GUZTIRA	INFORMAZIO FALTA		134.305	
HILDAKO PERTSONAK	INFORMAZIO FALTA		103	
<b>ESKAINITZA ETA ESKARIA</b>				
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-20,9	2009ko URT-ABE	-3,4	
BPGd EAEn (%ALD.)	-2,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	0,3	
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-1,9	2009ko IV. HIRUHILEKOA	0,3	
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-3,1	2009ko IV. HIRUHILEKOA	-1,2	
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	-2,3	2009ko IV. HIRUHILEKOA	-1,8	
<b>PREZIOAK</b>				
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	0,8	2009ko ABENDUA	1,4	
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,4	2009ko ABENDUA	2,2	
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2010/02/16ean eguneraturiko informazioarekin</p>				



# Aurkibidea

## Egoeraren azterketa .....4

1. Ekonomiak errekuperatu gabe jarraitzen du.....4
2. 58.700 lanpostu suntsitu dira 2009an .....4
3. Aldi baterako kontratuak medio suntsitutako enplegua .....5
4. 41.600 pertsonagehiago langabezian .....5
5. INEMen izena eman duten pertsonen %55ek ez dute kotizaziopeko langabezia prestaziorik kobratzen .....6
6. Nazioarteko inguru hurbilean baino langabezia tasa altuagoak ..7
7. Aldi baterako kontratuak are pisu handiagoa dute .....7
8. Enplegu erregulazioa izugarri hazi da .....9
9. KPIa baino soldata igoera handiagoak lortu behar dira .....9

## Menpekoenganako arreta Hego Euskal Herrian.....10

- Sarrera .....10
- Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuak. Beharrak eta benetako estaldura 2008an .....10
- Nafarroako gizarte-zerbitzuak. Beharrak eta benetako estaldura 2008an .....11
- Ondorioztapenak .....12

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, enpleguak 2009ko ekitaldian zehar Hego Euskal Herrian izan duen bilakaerari erreparatuko diogu, beste adierazle ekonomikoei buruzko datu berrienei ez ezik. Hileko puntako gaia Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gizarte-zerbitzuen egoera izango da oraingoan.

*\* Txosten hau 2010ko otsailaren 16ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

## 1. Ekonomiak errekuperatu gabe jarraitzen du

2009an BPGd-ak izandako bilakaerari buruzko datu aurreratuek atzeraldiaren jarraipena erakusten dute, bai Hego Euskal Herrian (HEH), eta baita bere inguruan ere.


2008ko bigarren hiruhilekoan hasitako ekonomiaren bilakaera eskasari, joera berdineko urteak jarraitu diola erakusten du grafikoak.

Nafarroako ekonomia da konparatiboki datu eta bilakaera "baikorrenak" erakusten dituena. Zehazki, Foru Erkidegoko BPGd-a %2,1a murriztu zen 2009ko lehen hiruhilekoan, %3,2a bigarrenean, %2,9a hirugarrenean, eta %1,9a laugarrenean.

Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) BPGd-a ere murriztuz joan zen 2009an zehar, lehen hiruhilekoko %2,5eko murrizketari, bigarreneko %3,6ak, hirugarreneko %4ak eta laugarreneko %2,5ak jarraitu baitzioten.

Gure inguruari dagokionez, espainiar Estatuko BPGd-a %3,2a, %4,2a, %4a, eta %3,1a murriztu zen 2009ko lau hiruhilekoetan, eta 27-EBkoa, batez beste, %4,9, %5, %4,3, eta %2,3.

### BPGd-aren urtearteko bilakaera (% aldaketa). 27-EB, 2008-2009



Iturriak: Eustat, IEN, Eurostat

BPGd-aren urtearteko bilakaeraren datuek (batzuk aurrerapenak bakarrik dira) Nafarroako ekonomia %2,5a murriztu dela 2009an zehar erakusten dute, EAEkoa %3,3, espainiar Estatukoa %3,6, eta 27-EBkoa %4,1.

EAEko BPGd-aren informazio zehatzak (oraindik ez daukagu Nafarroarako informazio hau), sektoreetatik, kaltetuena industria izan dela erakusten du (%9,5a murriztu da), gero eraikuntza (-%5,7), eta gero zerbitzuak (-%0,1); aipatzekoa da zerbitzuen barruan, merkatuko zerbitzuak %1,2a murriztu direla, ez-merkatuko zerbitzuak %5a hazi direlarik. Bere aldetik, nekazaritza eta arrantzako sektorea %2,1 igo da, nahiz eta urteetan jasandako murrizketak are baxuagoa egin duen bere pisua.

Eskariari dagokionez, inbertsioa da gehien murriztu dena (-%8,3), gero barne-eskaria (-%4), eta gero etxeguneen azken kontsumoko gastua (-%3,8). Aldiz, herri administrazioen azken kontsumoko gastua %3,2a hazi da, eta kanpo eskariaren bilakaera ere positiboa izan da, inportazioen jaitsiera (-%14,7), esportazioena (-%14,4) baino handiagoa izan baita.

Laugarren hiruhilekoan BPGd-ak izandako bilakaera positiboagoa erabiliz, krisialdiaren irteeran gaudenaren mezua zabaldu da. Hala ere, datuak aurreko hiruhilekoetakoak baino hobekak badira ere, txarrak izaten jarraitzen dute. Gainera, hurrengo hiruhilekoetan BPGd-ak izango duen bilakaera ikusi beharko da.

Beste alde batetik, gero eta ugariagoak dira egoera aztertzeko BPGd-a kontutan hartzearen aurka agertzen direnak, adibidez, zer neurtzen duen, neurtzen den era, eta batez ere, neurtzen ez duena arrazoitzat hartuz. Edozein kasutan, enplegu eta bere kalitatearen bilakaera ikusi beharko dira, lan arloan krisialditik ateratzen garen edo ez esan ahal izateko.

## 2. 58.700 lanpostu suntsitu dira 2009an

Lanean aritu diren biztanleak 1.189.600 izan dira Hego Euskal Herrian, 2009ko laugarren hiruhilekoan. Horrek esan nahi du urtean zehar 58.700 lanpostu (enpleguaren %4,7) galdu direla. Urtealdian zehar galdutako lanpostuetatik 46.000, gizonei zegozkien, eta 12.700, berriz, emakumezkoak; hortaz, lanean aritu diren gizonezkoak 655.400 izan dira, eta emakumezkoak, 534.200.


Lanean aritu den biztanleria sektorez sektore aztertuta ikus daitekeenez, 787.100 lagun (%66,2)



zerbitzuen sektorean ibili dira; 284.900 (%23,9), industria sektorean; 92.440 lagun (%7,8), eraikuntza, eta 25.200 (%2,1), nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza.

2009an suntsitutako lanpostuetatik 22.100 industrian galdu dira; 19.200, eraikuntza; 15.100, zerbitzuetan, eta 2.300, nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza. Termino erlatibotan neurtuta, eraikuntzak izan du jaitsierarik handiena, sektoreko lanpostuen %17,2 suntsitu baita. Hurrengo gutxipen handiena, nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza sektoreak nozitu du, %8,4ko lanpostu-galerarekin, hurrengo industria (lanpostuen %7,2), eta azkenik, zerbitzuen sektorean (lanpostuen %1,9koa).

### Lanean ari den biztanleriaren bilakaera sektoreka. HEH, 2009



Iturria: INE

Lanean aritutako biztanleriaren baitan, 989.000 lagunek izan dute soldatara lana, 526.000 gizonak eta 463.000 emakumeak, hain zuzen ere. Horren arabera, soldatara biztanleriak 17.000 laguneko jaitsiera izan du, 2008ko laugarren hiruhilekoaren aldean: soldatapeko 15.500 gizonak eta 1.500 emakumeak gutxiago izan dira, zehazki.

### 3. Aldi baterako kontratuak medio suntsitutako enplegua

Aldi baterako kontratuekin diharduten pertsonen kopuruak 37.000 laguneko gutxipena izan du 2009an zehar. Horrek agerian uzten du enplegu-suntsipenak, hein handi batean, aldi baterako langileen kolektiboan oinarritzen jarraitzen duela.

Ondorioz, behin-behinekotasun tasak 3,3 puntuko jaitsiera izan du ekitaldian, 2009ko laugarren hiruhilekoan %22,1era heldurik. Fenomeno hori emakumezkoen kolektiboak jasan du nabarmenkiago, aldi baterako kontratua duten emakumezkoen kopuruak 22.600 laguneko urripena izan baitu, gizonzkoen kolektiboan jazotakoa 14.400 lagunekoa izan delarik. Era horretan, emakumezkoen behin-behinekotasun tasa %25,8koa izan da (2008ko laugarren hiruhilekoak baino 4,7 puntu baxuagoa), eta gizonzkoena, %18,9koa (2,1 puntu baxuagoa).

Bestalde, 25 urtetik beherako gazteen kolektiboaren behin-behinekotasun tasa %60,7koa izan da (urtebete lehenagokoa baino 7,7 puntu baxuagoa), eta 25 eta 34 urte bitarteko kolektiboarena, %30,4koa (2,4 puntu baxuagoa).


Aldi-baterako lanpostuak medio suntsitu den enpleguaren eraginez behin-behinekotasun tasak jaitsiera izan badu ere, tasa hori Europakoa baino askoz altuagoa da oraindik ere. 27-EBko behin-behinekotasun tasa, zehazki, %13,8koa izan da 2009ko hirugarren hiruhilekoan (Europa mailako azken informazioa da), hau da, Hego Euskal Herrikoa baino 8,3 puntu baxuagoa. Modu horretan ere, gizonzkoen behin-behinekotasun tasa 5,8 puntu txikiagoa izan da 27-EBn HEHn (%13,1) baino, eta emakumezkoena, 11,2 puntu baxuagoa (%14,6).

Datuok agertzen dutenez, emakumezkoen kolektiboan ageri dira oraindik nazioarteko ingurunearekiko jauzirik handienak, behin-behinekotasunari dagokionez. Izan ere, Hego Euskal Herrian, 6,9 puntuko aldea dago gizonzkoen behin-behinekotasun tasaren eta emakumezkoenaren artean; 27-EBn, aldiz, aldea 1,5 puntukoa baino ez da.

### 4. 41.600 pertsona gehiago langabezia

2009aren amaieran, 155.300 langabe egon zeuden: 80.200 gizon eta 75.100 emakume. Beraz, langabeziak 41.600 laguneko gehikuntza izan du 2009an zehar, pertsona horietatik, gizonzkoak 22.800 eta emakumezkoak 18.800 izanik.

Era horretan, biztanleria langabeak %36,6ko hazkundera izan du 2009ko ekitaldian, 27-



EBekoaren hazkundera %25,2koa izan delarik (abenduko urte arteko datua). Argi dago, bada, mundu osoa astintzen ari den abagune ekonomiko honetan, Hego Euskal Herrian gainerakoan baino enplegu gehiago suntsitzen ari dela, lan-merkatuko behin-behinekotasun tasa altuak enplegu-suntsiketa ia musu-truk egitea ahalbidetzen baitie enpresei.

### Langabeziaren hazkundera (%). 27-EB eta HEH, 2009

Iturriak: Eurostat, INE

Oraingo krisi ekonomikoan zehar jazo dena aztertuz gero, are datu asaldagarriagoak ageri dira. Berez, 2008ko bigarren hiruhilekotik aurrera, langabeziak 78.900 laguneko gehikuntza izan du; hau da, urte eta erdian, langabeen kopurua bikoiztu egin da. Atal honetan ere, Hego Euskal Herria nabarmen geratzen da Europar Batasunean gertatutako bilakaeraren aldean, 27-EBko langabeziak aldi horretan, %41ko hazkundera izan baitu, hots, Hegoaldeko hazkunderaren erdira ere ez da iritsi.

Ildo beretik aipatu behar da biztanleria aktiboak 2009an zehar 17.000 laguneko gutxipena izan ez balu, langabeak 58.600 lagun gehiago izango zirela, 41.600 izan ordez.

Zehatz esateko, 65 urtetik beherako biztanleen jarduera-tasa %73,5ekoa izan da laugarren hiruhilekoan, 2009an zehar, biztanleria aktiboaren gutxipenaren ondorioz, 0,5 puntu jaitsirik. Gizonen jarduera-tasa %80koa izan da (urtebete lehenagokoa baino 1,9 puntu txikiagoa), eta emakumeena, %67koa (2009ko laugarren hiruhilekoan baino 0,9 puntu handiagoa).

Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestak (BJA) langabeziari buruz argitaratutako datua eta INEMen zerrendetako erkatzen baditugu, alde nabariak ageri dira bien artean. Zehazki, abenduan, 168.854 lagun azaltzen ziren INEMen zerrendetan, BJAREN arabera zeuden langabeak baino 13.554 (%8,7) gehiago, alegia. Nafarroan, bereziki esanguratsua da jautzia, INEMek jakinarazitako datua BJAREN baino %26,3 handiagoa da eta (EAEn, %4,1ekoa da aldea).

### Biztanle langabeak BJAREN arabera (2009ko 4. HH) eta INEMen erregistratutakoak (2009ko ABE.). HEH

	BJA	INEM	Aldea	Aldea %
EAE	123.100	128.201	-5.101	%4,1
Nafarroa	32.200	40.653	-8.453	%26,3
HEH	155.300	168.854	-13.554	%8,7

Iturriak: INE, INEM

INEMen datuen arabera, langabeziak 35.261 laguneko gehikuntza ùhots, %26,4koa izan zuen 2009an zehar.

### 5. INEMen izena eman duten pertsonen %55ek ez dute kotizaziopeko langabezia prestaziorik kobratzen

INEMen datuek, halaber, beste datu bat ere argitzen dute, alegia, INEMen izena eman duten 92.425 lagunek (guztien %55ek) ez dutela kotizaziopeko prestaziorik kobratzen, eta 51.562k (%31k) ez duela inongo prestaziorik jasotzen. Bistan dago, beraz, gizarte-babespenerako sistemak langabeei ematen dien itzal eskasa. Pertsona horiek, sistema publikoaren babesik ezean, familiartea erabili behar izaten dute aterpe.

### Langabezia prestazioen onuradunak. HEH, 2009ko Abendua

	Kotizaziopeko prestazioa	Prestazioen bat	INEMek zenbatutako langabezia
Lagun kopurua	76.429	117.292	168.854
Estaldura	%45	%69	

Fuente: INEM



## 6. Nazioarteko inguru hurbilean baino langabezia tasa altuagoak

BJAren datuen azterketarekin jarraituz, 2009ko laugarren hiruhilekoan langabezia-tasa %11,5ekoa izan dela ikus dezakegu; hau da, 3,2 puntu hazi da, aurreko urtealdiko aldi berari buruz. Gizonen langabezia-tasa %10,9koa izan da (3,3 puntu altuagoa), eta emakumeena, %12,3koa (3 puntu altuagoa). Bestalde, 25 urtetik beherakoen kolektiboaren langabezia-tasa %34koa izan da (11,4 puntu altuagoa), eta 25 eta 34 urte artekoena, %13,7koa (3,3 puntu altuagoa).


Hego Euskal Herriko langabezia-tasa gainerako herrialdeetako baino baxuagoa dela sinestarazi nahi badigute ere, Europa mailako datuek kontrako erakusten dute. Zehazki, HEHko langabezia-tasa 27-EBkoa (%9,1ekoa, abenduan) baino 2,4 puntu altuagoa izan da. Gizonen batez besteko langabezia-tasa 2,4 puntu altuagoa izan da HEHn 27-EBn (%9,1) baino, eta emakumeena, berriz, Europar Batasunean (%9) baino 3,3 puntu altuagoa.

Datuok, halaber, Hego Euskal Herriko langabezia-tasetan sexuen artean dagoen ezberdintasun handiagoa ere ikustarazten dute; izan ere, 27-EBn gizonezkoen eta emakumezkoen langabezia-tasak berdinak direlarik, Hego Euskal Herrian bien arteko diferentzia 1,4 puntukoa baita.

Beste alde batetik, 25 urtetik beherakoen batez besteko langabezia-tasa %20,4koa izan da 27-EBn, alegia, HEHkoa baino 13,6 puntu baxuagoa (25 eta 34 urte artekoen buruz ez dago Europa mailako informaziorik).

Europa mailako datuen azterketa zehatzagoa eginez ikus daitekeenez, Hego Euskal Herriko tasa, 27-EBko batez bestekoaren gainetik egon ez ezik, Europar Batasuneko altuenetako bat ere bada. Zehatz esateko, hurrengo grafikoan ikusten den eran, eskuartearen dugun informazioa dagokien estatuetatik (Estonia, Grezia, Lituania, Errumania eta Erresuma Batuari buruzko datuak falta zaizkigu), bakarrik Irlandak, Eslovakiak, Espainiako Estatuak eta Letoniak dute Hego Euskal Herrikoa baino langabezia-tasa altuagoa, eta gainerako 18 herrialdeek langabezia-zifra txikiagoak agertzen dituzte.

## 27-EBko langabezia tasak (2009ko abendua) eta HEHkoak (2009ko 4. HH).



Iturriak: Eurostat, INE

## 7. Aldi baterako kontratuek are pisu handiagoa dute

Hego Euskal Herrian, 2009an, 874.649 lan-kontratu sinatu ziren. Horrek %17,6ko jaitziera adierazten du, 2008an sinatutako kontratuen aldean.

Sinatutako kontratuetatik gehientsuak aldi baterakoak izan ziren: kontratu guztien %92,3, hain zuzen ere. Datu horrek argi erakusten du aldi baterako kontratuen pisua handitu egin dela, guztizkoari buruz, 2008ko portzentajea %90,9 izan zen eta.

Aldi baterako kontraturik ugariena ekoizpen-beharretarako behin-behineko kontratua izan zen, horrelako 315.523 (kontratu guztien %36,1) sinatu zirelarik, eta hurrengo ugariena obra- edo zerbitzu-kontratua, 268.610 alerekin (guztizkoaren %30,7), eta bitarteko lan-kontratua, 202.812rekin (%23,2). Horien atzetik, askoz portzentaje txikiagoekin, honako hauek ageri dira: jubilazio partzialeko kontratua (guztizkoaren %0,6), txanda-kontratua (%0,5), praktikaldiko kontratua (%0,5), aldi baterako beste kontratu mota batzuk (%0,4), prestakuntza-kontratua (%0,2), elbarrien behin-behineko kontratua (%0,1) eta 64 urterekin

jubilatua ordeztzeko kontratua, guztizkoan ia pisurik ez duena.

Kontratu mugagabeak, bestalde, 67.619 izan ziren, hau da, guztizkoaren %7,7. 2009an gehien erabili zen kontratu mugagabea kontratu mugagabe arrunta izan zen, 29.153 alerekin (guztizkoaren %3,3); horren ondoren, mugagabe bihurtutako lan-kontratua izan zen erabiliena, 28.456rekin (guztizkoaren %3,3), eta ostean, kontratazio mugagabea sustatzeko kontratu mugagabea, 9.688rekin (%1,1) eta elbarrien kontratu mugagabea, 322 alerekin, sinatutako kontratuen guztizkoan ia pisurik ez duena.

Sinatutako lan-kontratuen modalitateek ere emakumeen kaltetan suertatzen den beste osagai bat erakusten dute. Izan ere, aldi baterako kontratuak guztizkoan duten pisua 1,5 puntu handiagoa da emakumeen kasuan (%93) gizonenean baino (%91,5). Emakumeen kontra jotzen duen beste alderdi bat ere badago, kolektibo horren kasuan, bigarren kontratu ohikoena bitarteko kontratua baita, sinatutako kontratu guztien %33,7 dagokiola (gizonen kasuan, %11,1ekoa da portzentajea). Datu horrek, berez, ez luke aparteko garrantzirik, bitarteko kontratuean diharduen langileak, enpresatik bidaltzean, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ez duelako ez balitz; aldi baterako gainerako kontratuak, lan-urte bakoitzeko, 8 eguneko kalte-ordaina kobratzeko eskubidea ematen dute eta.

## Sinatutako kontratuak, motaren arabera. Hego Euskal Herria, 2009

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
ekoizpen-beharretarako k.	315.523	36,1	155.547	38,2	159.976	34,2
OBra edo zerbitzu k.	268.610	30,7	159.013	39,1	109.597	23,4
Bitartekoa	202.812	23,2	45.119	11,1	157.693	33,7
Jubilazio partziala	5.128	0,6	3.956	1,0	1.172	0,3
Txandakoa	4.424	0,5	3.052	0,7	1.372	0,3
Praktikaldikoa	4.370	0,5	2.289	0,6	2.081	0,4
Beste batzuk	3.275	0,4	1.629	0,4	1.646	0,4
Prestakuntzarakoa	1.962	0,2	1.146	0,3	816	0,2
Elbarrien behin-behineko k.	849	0,1	508	0,1	341	0,1
64 urteko jubil. ordeztzekoa	77	0,0	45	0,0	32	0,0
<b>Aldi baterakoak</b>	<b>491.507</b>	<b>92,3</b>	<b>216.757</b>	<b>91,5</b>	<b>274.750</b>	<b>93</b>
Mugagabe arrunta	29.153	3,3	15.107	3,7	14.046	3,0
Mugag. bihurtuak	28.456	3,3	14.995	3,7	13.461	2,9
Enp. sust. k. mugagabea	9.688	1,1	4.492	1,1	5.196	1,1
Elbarrientzakoa	322	0,0	209	0,1	113	0,0
<b>Mugagabeak</b>	<b>67.619</b>	<b>7,7</b>	<b>34.803</b>	<b>8,5</b>	<b>32.816</b>	<b>7,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>874.649</b>	<b>100</b>	<b>407.107</b>	<b>100</b>	<b>467.542</b>	<b>100</b>

Iturria: INEM

Sinatutako kontratuei buruzko daturik berriena aurtengo urtarrilekoa da, zeinen arabera Hego Euskal Herrian 66.281 lan-kontratu sinatu diren, %91,9 aldi baterako kontratuak izan direlarik.





## 8. Enplegu erregulazioa izugarri hazi da


2009an zehar enplegu-erregulaziorako 3.512 fitxa baimendu ziren HEHn, hots, 2008an (760 fitxa onartu ziren orduan) baino 4,6 bider gehiago. Era horretan, enplegu-erregulazioaren hazkundera nabarmena eta benazkoa izan da, ekonomiaren ikuspuntutik oparo izandako urteetakoan aldean.

Erregulazio-fitxa horien eragina 106.395 langilek nozitu dute, alegia, aurreko urteko aldi berean fitxen kaltea jasan zutenak halako 4,5k. Etendura-neurrien eragina jasan duten langileak, hau da, behin-behineko ondorioak nozitu dituztenak, 100.084 izan dira (enplegu-erregulazioak jotako pertsona guztien %94,1); irazpen-neurriak jasan behar izan dituztenak, hots, lana behin betiko galdu dutenak, 4.898 (%4,6) izan dira, eta lanaldi-murrizketako neurrien eraginpean egon direnak, alegia, lanaldia moldatu egin zaienak, 1.413 (%1,3).

## 9. KPIa baino soldata igoera handiagoak lortu behar dira

Prezioek %0,8ko igoera izan dute abenduan, urte osoan nagusitu diren zifra negatiboen ondorioz deflazioaren beldurrez ibili ondoren. Hurrengo grafikoan ikusten denez, 27-EBko batez besteko bilakaera ezberdina izan da, KPIa positiboa izan baita ekitaldi osoan zehar, eta urteko emaitza, %1,4koa.

### Prezioen urte arteko bilakaera. 27-EB, 2009



Iturriak: IEN, Eurostat

Urtarrileko datuak %1eko igoera erakusten du espainiar Estatuan.

Bai Espainiako estatuan, bai Hego Euskal Herrian, prezioek izandako bilakaera eta abagune ekonomikoa berriro bihurtu dira aitzakia, enpresariak, urtean zehar hainbat aldiz, soldatak murriztu beharra azpimarratzeko.

2010eko negoziazio kolektiboari begira, ELAren iritziz, soldatek %0,8aren gaineratik igo behar dute, krisialditik irteteko urratsak bidezkoagoak eta bizkorragoak izango badira.

Aldarrikapen hori langileen bizi-kalitatea hobetzea eta azken urteetan lan-errentek galdu duten aberastasun-zatia berreskuratzen laguntzea ahalbidetu dezaketen soldata- eta lan-baldintzak hobetzeko borrokaren atal da.

## Sarrera

Atal honetan, Hego Euskal Herriko gizarte-zerbitzuen errealitatea aztertuko dugu. Zehazki, zer behar dauden, eta gizarte-zerbitzuek behar horiei erantzuteko zer-nolako estaldura eskaintzen duten izango dira oraingo mintzagai nagusiak, "2008ko Txostena. Pertsona Nagusiak Espainian" izenburuko txostenean bildutako datu ofizialak oinarritzat hartuta.

Gizartean dauden beharrak aztertze aldera, eguneroko oinarrizko gauzak egiteko ezintasunen bat duten 65 urtetik gorako biztanleak hartuko ditugu menpekotzat edo zaindu beharrekotzat. Era horretan, bada, menpekoen guztizkoa jakiteko, aipatutako pertsona horien egoera berean dauden eta 65 urte baino gutxiago dituzten biztanleak ere hartu behar dira aintzat, baina informazio hori ez dugu.

Eskaintzari dagokionez, gogoan izan behar da gizarte-zerbitzuek menpeko biztanleria osoaren premiei erantzuten dietela, alegia, eguneroko oinarrizko ekintzak gauzatzea eragozten dien urritasunen bat eta 65 urte baino gutxiago dituzten pertsonen premiei ere bai. Hortaz, gizarte-zerbitzuen benetako estaldura hemen agerrarazitakoa baino urriagoa da berez.

Txostenak gizarte-zerbitzuen eskaintzaren inguruan argitaratutako datuak Hego Euskal Herriko administrazioek emandakoetan daude oinarriturik, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Foru Aldundiek eta Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak emandako datuetan.

Gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuek ez dute euren prestazioari buruzko informaziorik ematen, eta, beraz, alor hori azterlan

honetatik kanpo geratzen da, toki-kopuruaren gainekoa izan ezik, alderdi horretan arlo pribatuko datuak ere baitauzkagu. Atal honetako gainerako informazioa, hau da, erabiltzaileen kopurua, estaldura, erabiltzaileak ordaindu beharrekoa eta abar, gizarte-zerbitzu publikoei edo itunpekoiei buruzkoa da.

## Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuak. Beharrak eta benetako estaldura 2008an

Goian aipatutako txostenaren arabera, EAEn 65 urtetik gora eta eguneroko oinarrizko gauzak egiteko ezintasunen bat duten 155.200 lagun daude.

Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen kopurua, berriz, askoz txikiagoa da; izan ere, 36.216 pertsonak baino ez dute zerbitzuren bat jaso. Beraz, alderdi horri dagokionez, estaldura publikoak eta itunpekoak beharizanen %23,3 baino ez dute asetzen.

Hona hemen hainbat motatako gizarte-zerbitzu batzuei buruzko zifrak:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua 21.891 lagunek hartu dute, alegia, zainketak behar dituzten biztanle guztien %14,1ek.

### Gizarte zerbitzu publikoei zein itunpekoiei buruzko taula. EAE 2008

	Etxeko laguntza zerbitzua	Egoitzak	Eguneko zentroak	Etxez etxeko janari zerbitzua	Guztira
> 65 urte eta EOEtarako ezintasunen bat duten pertsonak					155.200
Erabiltzaileak(1)	21.891	11.254	2.831(2)	240(3)	36.216
Estaldura tasa (%)	14,1	7,3	1,8	0,2	23,3
Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa(%)	12,06	43,5	23		
Orduak / Hileko / Erabiltzaileko	20,61				

Iturria: "2008ko Txostena. Pertsona nagusiak Espainian"

- 1) Además de esta información, hay 341 personas usuarias atendidas en Viviendas Tuteladas (1) Aipatutakoei Araban Tutoretzapeko Etxebizitzetan arreta egiten zaien beste 341 erabiltzaile gehitu behar zaizkie.
- (2) Aipatutako horiei ez ezik, beste 147 erabiltzaile ere egin zaie arreta Arabako Foru Aldundiko Eguneko Arretarako Landa Zentroetan, bai eta beste 20 pertsonari ere, Arabako Egoitza Publikoetako Eguneko Arretan.
- (3) Zerbitzu hau Araban baino ez da eskaintzen.



Dena dela, zerbitzu hori jasotzeak ez du esan nahi behar bestekoa denik. Hileko 20,61 orduko batez bestekoa, hots, astean 5 ordu, oso eskasa da.

Estaldura handiena eskaintzen duen gizarte-zerbitzua delarik ere, erabiltzaileek, batez beste, kostuaren %12,06 ordaintzen dute azkenean.

- Egoitza publiko nahiz itunpeko batean tokia lortu duten pertsonak 11.254 izan dira. Datu horrek menpekotasuna duten pertsona guztien %7,3ko estaldura adierazten du.

Egoitzako tokiaren azken kostuaren %43,5 erabiltzaileak ordaintzen duelarik, beraren premia duten biztanleei gastu handiena eragiten dien gizarte-zerbitzua da, banako kostu handienekoa ez ezik.

Ekimen pribatuaren presentzia nabarmena da egoitza-zerbitzuetan, tokien %22 pribatuak dira eta (%31,4 baino ez dira publiko, eta %46,6, itunpeko).

- Eguneko zentroek 2.831 laguni ematen diete zerbitzua. Estaldura publiko zein itunpeko estaldura urriek menpeko biztanle guztien %1,8ri baino ez diete erantzuten.

Eguneko zentroen kasuan, erabiltzaileak zerbitzuaren azken kostuaren %23 ordaintzen du guztira.

Eguneko zentroetan ere, ekimen pribatuaren presentzia oso handia da: tokien %16 dira pribatuak (publikoak %52,2 dira, eta itunpekoak, %31,8).

- Etxez etxeko janari-zerbitzua 240 lagunek erabiltzen dute; hau da, eguneroko oinarrizko ekintzak gauzatzea oztapatzen diene urritasunen bat eta 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen %0,2 dira estaldura horren

onuradunak. Zerbitzu hori Araban baino ez da eskaintzen.

## Nafarroako gizarte-zerbitzuak. Beharrak eta benetako estaldura 2008an

Nafarroako Foru Erkidegoan, 65 urte baino gehiago eta eguneroko oinarrizko ekintzak gauzatzeko ezintasuna duten 44.300 pertsona daude. Horiexek hartu ditugu gizarte-zerbitzuen beharra duen erreferentziako biztanleriatzat.

Horietatik, ordea, zerbitzuren bat jasotzen duten pertsonak 6.660 besterik ez dira. Beraz, gizarte-zerbitzu publikoen eta itunpekoen estaldurak zainketaren bat behar duten biztanleen %15i baino ez zaio heltzen.

Jasotako zerbitzuak motaren arabera sailkatuz, hauxe ikusten dugu:

- 3.660 lagunek, hau da, eguneroko oinarrizko gauzak egiteko nolabaiteko zailtasuna duten biztanleen %8,2k, jasotzen dute etxez etxeko laguntza-zerbitzua.

Horrez gain, estaldura-mailari buruzko ideia zehatzagoa egitearren, erabiltzaile bakoitzari, batez beste, soilik 10,5 ordu eskaintzen zaizkio hilean (joan-etorriak, prestakuntza eta koordinazioa, alegia, zerbitzuan emandako ordu guztien %23,3, denbora horren barruan zenbatuta).

Estaldurari dagokionez gehien eskaintzen den gizarte-zerbitzua izan arren,

### Gizarte zerbitzuei zein itunpekoei buruzko taula. Nafarroa 2008

	Etxeko laguntza zerbitzua	Egoitzak	Eguneko zentroak	Janari eta garbiketa zerbitzua	Guztira
> 65 urte eta EOEetarako ezintasunen bat duten pertsonak					44.300
Erabiltzaileak (1)	3.660	2.566	257	177	6.660
Estaldura Tasa (%)	8,2	5,8	0,6	0,4	15,0
Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa (%)	50	73	43		
Orduak / Hileko / Erabiltzaileko	10,5				

Iturria: "2008ko Txostena. Pertsona nagusiak Espainian"

erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren %50 ordaindu behar du.

- Guztira, 2.566 lagunek dute tokia egoitza publikoetan eta itunpekoetan; zifra horrek arreta behar duten pertsonen %5,8 adierazten du.

Zerbitzu horren azken prezioan, parte-hartze publikoa oso txikia da, eta erabiltzaileari egoitzako tokiaren kostuaren %73 ordainarazten zaio.

Egoitzetako tokien %24,5 publikoak dira, itunpekoak %15,9, eta pribatuak %59,6.

- Eguneko zentroetara 257 erabiltzaile joaten dira, hots, erreferentziako biztanleriaren %0,6.

Kasu horretan ere, erabiltzaileek eguneko zentroaren prezioaren %43 ordaindu behar dute.

Eguneko zentroen hariari jarraituz, ekimen pribatuaren pisu handia erakusten duten datuak ere baditugu. Eguneko zentroetako tokien %10,3 besterik ez dira publiko, itunpekoak %14,8 eta pribatuak %74,9 direlarik.

- 177 lagunek erabiltzen dute etxez etxeko janari-zerbitzua edo arropa garbitzeko zerbitzua; laguntza behar duten biztanleen %0,4 dira horiek.

## **Ondorioztapenak**

Hego Euskal Herriko gizarte-zerbitzuen estaldura ez da inondik ere nahikoa. Izan ere, EAEko menpeko biztanleriaren %76,7k eta Nafarroakoaren %85ek ez dute inolako zerbitzu publikorik edo itunpekorik jasotzen. Era horretan, Hego Euskal Herrian, 200.000 pertsonak dute 65 urte baino gehiago eta eguneroko oinarrizko ekintzak garatzeko ezintasunen bat, eta 42.876k besterik ez dute gizarte-zerbitzuren bat erabiltzeko aukera. Beraz, gizarte-zerbitzu publikoen eta itunpekoen estalduraren hartzaileak menpeko biztanleriaren %21,5 baino ez dira.

Ematen diren zerbitzuetan, gabezia garrantzitsuak hautematen dira, askotan zerbitzu-maila oso eskasa baita, erabiltzaileak kostuaren zati handi bat ordaindu behar izateaz gainera.

Bestalde, ekimen pribatuaren presentzia handiak agerian uzten du administrazio publikoen utzikeria, bai eta 65 urtetik gora eta eguneroko oinarrizko ekintzetarako ezintasunen bat duten pertsonen zaintza eta hori bezain funtsezkoak diren beste premia asko merkatu-gai bihurtu nahia ere.

ELAk menpekotasun-egoera guztiei erantzuteko moduko sistema publiko, unibertsal eta doakoa (zergen bidez finantzatua) aldarrikatzen du, gizarte-zerbitzuen arloan.